

1.- Ikuspegi nagusia

OGP Euskadiren 2021-2024 Planaren 1. konpromisoaren aurkezpenean (COVID19aren Behatokia da hirian) eta herritarrentzako zerbitzuen egokitzapenean, adierazi genuen pandemiak eta horren ondorioek errotik aldatu dutela herritarren errealitatea, eta erakundeen eta gobernu-planen lehentasunen agenda egokitu beharra dakarrela.

Horregatik, proiektu bat proposatu genuen, lehenik eta behin, ikuspegi zabaleko adierazle batzuk definitzeko, populazioen eta herritarren egoera eta bilakaera (jarduera ekonomikoa, soziala, hauskortasun-egoerak, kolektibo espezifikoaren egoera, etab.) ezagutu eta monitorizatu ahal izateko, eta, aldi berean, egoera arintzeko hainbat eremutatik hartzen ari diren neurrien eragina egiaztatu ahal izateko.

Aldi berean, uste genuen beharrezkoa zela erakundeek beren lehentasunen agenda hausnartzea eta birplanteatzea eta zerbitzuak egoera berrira egokitzea: edozein kasutan ziurtatu beharreko funtsezko zerbitzuak zeintzuk diren definitzea, zerbitzu horiek indartzea eta lehenestea Jaurilaritzaren planetan aurrez aurreikusitako beste jarduera batzuen gaitetik, herritarren arreta eta erakundeen eta herritarren arteko harremanak birplanteatzea, zerbitzuak emateko paradigma berria eta abar.

Pandemiaren ondorioei dagokienez, egoera objektiboak eta, bereziki, pertzepzio subjektiboak muturreko aldaketak izan dituzte konpromiso hori eta haren helburuak finkatu ditugunetik igaro diren hilabeteetan. Hala ere, egoera espezifikoaren gaitetik, une oro, alderdi zabalago baten azpian dagoen elementu bat dago, helburua eta konpromisoa bera birdefini ditzakeena ikuspegi zabalago eta iraunkorrago batekin: ERRESILENTZIA.

Erresilientzia une kritikoak gainditzeko eta normaltasunera itzultzeko egokitzeko gaitasuna da. Oro har, erresilientzia terminoa izaki bizidun edo material batek inpaktu baten ondoren hasierako egoerara itzultzeko duen gaitasunari dagokio.

Hiri-erresilientzia hiri batek mehatxu edo gertaera disruptibo baten aurrean duen gaitasuna da, erresistitzeko, xurgatzeko, egokitzeko eta bere efektuetatik modu egoki eta eraginkorrean berreskuratzeko, bere oinarriko egiturak eta funtzioak zaintzea eta lehengoratztea barne. Erresilientzia hori garapeneko eta hiri-hazkundeko kontzeptu dinamikoei lotuta dago. Ildo horretan, erresilientzia prozesutzat hartzen da (ez ezbeharrari berehalako erantzuna ematea), larrialdiak kudeatzeko tekniketarik haratago doa, aurrerapenarekin du zerikusia, baina baita hiri-garapeneko estrategiekin ere, eta ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-aurrerapenaren bektore positiboa da.

Laburbilduz, hiriek krisialdirik ez izateko, krisiak pairatuz gero inpaktua murrizteko edo jasan ondoren normaltasunera itzultzeko behar duten denbora eta baliabideak murrizteko duten gaitasunaz ari da.

Krisi bakoitzaren ondorioak hiri inpaktu jakin batzuei aurre egiteko prestatzearen eta herritarrek horien aurrean hautematen eta erreakzionatzen duten moduaren arabera dira.

Horretarako, lehen urratsak psikologiaren errezeta zahar bati jarraitzen dio: ezagutu zeure burua. Hiriak bere sistemak ezagutzea eskatzen du prestatu ahal izateko. Zentzu horretan, giza gorputzaren metafora baliozkoa da berriz ere: pertsona batek alterazio bat duenean, medikuarengana joaten da. Hirien kasua berdina da: diagnostiko bat behar dute, eta diagnostiko horretatik abiatuta erabaki egokiak hartu behar dira funtzionamendu egokia lehenbailehen berreskuratzeko.

Hausnarketa zabalago horrek indartu egiten du Konpromiso honetan ezarritako helburua: ahalik eta adierazle-sistema zeharkakoena eraikitzea, denbora laburrean krisi-mota ugariaren aurrean hirian gertatzen dena aztertzeko balio dezakeena. Eta horixe da, hain zuzen ere, aurreikusi gabeko egoeretan jarduteko modu bat modelizatzeko lehen urratsa, herritarrek bizi dituzten egoerak hobeto ezagutu ahal izateko, bai barnean, bai komunitatean, eta informazio gardena emateko, hori baita gobernu ireki bat lortzeko oinarriko abiapuntua.

2.- Identifikatutako krisi-mota nagusiak:

- Ekonomikoa
- Sanitarioa (birikoa eta bakterianoak)
- Fenomeno naturalak



- Klima-aldaketa (uholdeak, lehortekak, bero-boladak...)
- Bestelakoak (lurrikarak, sumendiak, tsunamiak, suteak)
- Ustekabekoak (petrolio-ontziek eragindako marea beltzak, zentral nuklearrak...)
- Belikoak
- Terroristak
- Energetikoak
- Teknologikoak

3.- Adierazleen taula proposatzea, hirian hainbat krisi-egoerek duten eragina neurtzeko (Erresilentzia)

EREMUA	ADIERAZLEA
ENPLEGUA	Afiliatutako langileak (hileko azken egunean) Guztira eta afiliazio-erregimenaren arabera
	Hileko langabeziaren indizea (eta generoaren arabera)
	Langabetuak guztira (eta generoaren arabera)
GIZARTE EKINTZA	DSBE (diru-sarrerak bermatzeko errenta) guztira eta generoaren arabera jasotzen duten pertsonak
	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) jasotzaileak, hilabetearen eta zenbateko ekonomikoaren arabera
	Udalerrian gizarte-laguntzak jasotzen dituzten familiak
JARDUERAK	Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen kopurua, jarduera-sektorearen, Jarduera Ekonomikoen Zentsu Nazionalaren, eragindako pertsonen, generoaren eta espediente moten arabera
	erkataritzako eta industriako hondakinen bilketa (papera eta kartoia, ontziak eta errefuxa)
OSTALARITZA	Alde Zaharreko ostalaritzara beira biltzea
TURISMOa	statu-gauak, sarrerak, batez besteko egonaldia, okupazio-maila Donostiako ostautetan
	Etxebizitza turistikoen zenbakia
MUGIKORTASUNA	Ibilgailuen hirirako sarrerak eta irteerak, bide nagusiak (edukiera)
	Bidaiariak Dbusen. Asteko lanegunen eta bidaiarien hileko batez bestekoa (generoaren arabera)
	Hilero hiriko txandakako aparkaleku desberdinak erabiltzen dituzten ibilgailuen kopurua
UDALTZAINGOA	Delitu kopurua motaren arabera (atestatuak eta esku-hartzeak)
	Istripu-kopurua motaren arabera
INGURUMENA	Airearen kutsasura
	Hiri-eremuan bildutako hondakinak (birziklatze-ehunekoak)
	Hiri- eta industria-eremuan bildutako hondakinak (birziklatze-ehunekoak)



ETXEBIZITZA

Etxebizitzen salmenta-prezioa zonaren, m2-aren eta guztizkoaren arabera
Etxebizitzen salmenatk zonaren arabera
Idealista atarian alokairu-eskaintzan dauden etxebizitzien kopurua eta salgai dauden etxebizitzien kopurua

**KIROLA /
HIRITARREN
DINAMISMOA**

Udal-kiroldegien erabiltzaile-kopurua instalazio bakoitzeko.
--

DEMOGRAFIA

Hiriko biztanle kopuruaren urte arteko aldaketa
Atzerritarren kopuruaren urte arteko aldaketa
Zahartze-indize
Jaotze-tasa

EKONOMIA

Kontsumoko prezioen indizea



Lehendakaritza
Presidencia